



Lasarte-Oriak 25 urte beteko ditu bihar

1986ko otsailaren 15ean eratu zen Lasarte-Oriako Udala eta udalerría, eta bihar, herria sortu zenetik 25 urte betetzen direla eta, aste guztian (gaur hasi eta hilaren 20ra arte) hainbat ekitaldi burutuko dira, gehienak herriko taldeek eta herri-tarrek eginak. Herri-tarrei eman nahi zaie protagonismoa /4-



Gai jartzaile ederra izan genuen Lasarte-Oria eta Gabiriaren arteko desafioan, konplementoak ere erabili zituen saioari bizitasuna emateko.



Bi orduko bertso saio ederra

Bertso saio polita ikusi zen ostiralean Jalgi kafe antzokian. Lasarte-Oria eta Gabiriaren arteko bertso

desafioan kalitate handia sumatu zen. Ondo aurre egin zioten Imanol Lizardi gai jartzaileak ezarritako puntuei.

Ikusleak oso ondo pasa zuten, eta atseden txiki baten ostean eurak ere puntuak jartzeko parte hartu zuten.

Saio berezia eskaini ziguten Lasarte-Oriak eta Gabiriak Gipuzkoako txapelketa prestatzeko entrenamenduan. •

Giro ederra Xirimiriko barrikotean

Xirimiri Elkarteak jendez bete zen larunbatean elkartek berak antolatutako Barrikoteaz gozatzeko asmoz.

Bakailu tortila, bakailua, txuleta eta nola ezba, sagardoa izan ziren protagonista gauean zehar. 21:00etan hasi zen afaria eta luze jo zuen. Gauak aurrera egin ahala Xirimirin bildutako jendearen umoreak ere gora egin zuen nabari. Menu eder baten inguruan lagunekin biltzeko aitzaki paregabea. Giro ona nagusitu zen afari osoan zehar. •



Barrikotean, menua goxoa dastatzeko aukera izan zuten larunbatean Xirimiri Elkartearen bildu ziren guztiak.

KIROLA/2

Buruntzaldea IKT taldeko igerilari gazteek lau domina lortu zituzten

ALBISTEA/3

Baietz gurean proiektua martxan Buruntzaldean lan munduan euskara sustatzeko

ALBISTEA/6

Erraustegiaren finantzaketari erantzuna



Bideo Lagunak

BEGIRATU GURE ESKAINTZAK! Inguruko erakusketarik onena!

Donostia Etorbidea 2 • Lasarte-Oria • Tel.:943 373134
jose@bideolagunak.com • www.bideolagunak.com

Betiko zerbitzua gure aholkularitza onenarekin

Igerilari gazteek lau domina lortu zituzten

Dominak eskuratzeaz gain, markak hobetu zituzten Buruntzaldea IKT-ko gaztetxoek

Buruntzaldea Igeriketa taldeko gaztetxoek bi lehiaketa izan zituzten lehengo asteburuan, otsailaren 4 eta 5ean, Gipuzkoako 2. mailako Neguko torneoaren eta Kutxako Gaztetxoaren elkarteko XI. Igeriketa Saria.

Bi lehiaketetan emaitza paregabeak lortu zituzten herriko igerilariak: lau domina ekarri eta aurreko markak hobetu baitzituzten.

Neguko Torneoa

Borja Apeztegia entrenatzaileak azaldu zigunez, giro ona egon zen taldean eta dominak ere izan ziren Gipuzkoako 2. mailako Neguko torneoan. Izan ere, parte hartu zuten lau igerilariarik hiruk domina lortu zuten.

Garazi Alkorta bigarren izan zen 400 metro libre proban, 5 m. 44sg. 77 denbora eginez; Unai Buenok ere zilarra eskuratu zuen 200 m. bizkar proban, 2 minutu 47 sg. 61, eta 42sg. 38 denborarekin, Kevin Iglesiasek brontzea 50 m. bular proban.

Jone Vazquezek ez zuen dominarik lortu baina "400 metroko proba ederra egin

zuen eta bere marka 5 segundoko hobetzea lortuz."

Era berean, Jone Vazquezek 100 libre proban parte hartu zuen, hau, eguneko azken probetakoa izan zen eta Buruntzaldea IKTko igerilari gaztearentzat eguneko laugarrena.

"Neke nabaritu zitzaion, baina gogoz egin zuen igeri," azpimarratu du bere entrenatzaileak.

Honetaz gain, errelebo mistoak aurkeztu zituzten 4x 50 m. libre eta 4x 50 m. estilo probetan.

Nahiz eta bietan 3. postua eskuratu, mutilen erreleboak izanik Buruntzaldeko taldeak probaz kanpo bezala lehiatu ziren eta dominarik gabe geratu ziren.

Honetaz gain, laugarren postu bat eta bosgarren bat ere egin zuten igeriketa taldeko gazteek.

100 metro bizkar estiloon laugarren postua lortu zuen Garazi Alkortak, bere marka lau segundotan hobetuz, 1 minutu 26 segundo eta 68.

Kevin Iglesiasek eta Unai Bueno 400 libre proban aritu ziren, lehena laugarren pos-



Kutxako Gaztetxoaren elkarteko finalen parte hartu zuten igerilariak. Iñigo Ibarburu, eskuinetik hasita bigarrena, urrezko dominar ekin.

tuan sailkatu zen eta bigarrena zazpigarrenean.

"Biek beren marka hobetu zuten eta benetan gogoz egin zuten igeri," adierazi du entrenatzaileak.

Kutxa Saria

Igande goizean, berriz, Legazpin ospatu ziren Kutxako Gaztetxoaren elkarteko XI.

Igeriketa Sariko finalak.

Hauetan, Buruntzaldea IKTko bost igerilari izan ziren azkenean, "Naiara gaixorik zegoen eta," azaldu du Borja Apeztegiak.

Gauzak honela, azpimarratzekoa da, Iñigo Ibarburu gazteak 50 metro tximeleta proban lortu zuen urrea.

"Nagusitasun osoz irabazi zuen," aipatu digu Borjak eta 30 segundo eta 96 denborarekin, bigarrenari ia bi segundoko aldea atera zion.

Tamalez dominak lortzeko zituzten beste aukerak alde egin zuten.

Itsaso Tolosa 50 m. bizkar frogan bosgarren postuan sailkatu zen; Unai Bueno ere bosgarren sailkatu zen proba berdinean.

B finalen, berriz, Garazi Alkorta bere seriean bigarren izan zen eta beraz, sailkapenean zortzigarren.

Azkenik, taldeko gazteenak, Ainara Garciak 50 m. bular proban egin zuen igeri zortzigarren postuan sailkatuz eta kanporaketako denbora hobetuz.

Bakarkako probetaz gain, erreleboan ere jardun ziren herriko igerilariak. Itsaso Tolosa, Garazi Alkorta, Unai Bueno eta Iñigo Ibarburuk osatutako taldeak seigarren postua lortu zuten.

Asteburu honetan, I. mailako Gipuzkoako Neguko Txapelketan lehiatu dira herritarrek. Edizio itxi baino lehen, ez dugu emaitzarik lortzerik izan. •



Kevin Iglesiasek, Jone Vazquezek, Unai Bueno eta Garazi Alkortak Neguko Torneoan lortutako dominak. Arg.: Buruntzaldea IKT

Neguko Torneoan, Garazi Alkorta eta Unai Buenok zilarrezko domina eta Kevin Iglesiasek brontzezkoa lortu zuten; Iñigo Ibarburuk, aldiz, urrezko domina Kutxako Gaztetxoaren Sarian

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@itakun.com • Publizitatea: publizitatea@itakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@itakun.com; itakun@itakun.com.

Txintxarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Buruntzaldean lan munduan euskara sustatzeko *Baietz gurean* jarri da abian

■ Buruntzaldeako hamabi enpresetan egingo da lan aurtun ■ 2014. urtera arte egongo da proiektua martxan

Euskara lan munduan sustatze arren, Buruntzaldeako Udalek elkarlan handia egiten dute.

Orain arte Buruntzaldeako enpresetan euskara planak abian jartzea eta garatzea sustatu badute ere, eskarmentuak erakutsi diena kontuan izanik egitasmo berria jarri dute abian, *Baietz gurean*.

Egitasmo hau Urnietako udaletxeko batzar-aretoan, aurkeztu zuten ostegunean, Bertan, Urnietako alkatea Mikel Izagirre, Iñaki Mugica Lasarte-Oriako Euskara Batzordeko lehendakaria, Iker Urruzola Jarraipen batzordeko sindikatueta kideen ordezkaria, Santiago Sarasola TSSTko gerentea, Malores Etxeberria Hernaniko euskara teknikaria eta Mariñer Gorostiza Lasarte-Oriako Euskara teknikaria egon ziren.

Proiektua

Baietz gurean proiektuaren helburu nagusia, ahalik eta enpresa gehienek euskararen erabilera normalizatzeko bitartekoak izatea da.

Buruntzaldeako herrien ekimen berri hau 10 langiletik gorako enpresei zuzendua dago, beti ere, euskara edo euskarazko sorkuntza enpre-



TSST enpresako ordezkaria, udal ordezkariak, sindikatueta ordezkaria eta euskara teknikariak egitasmoaren aurkezpen ekitaldian.

saren jarduera nagusia ez bada.

Izan ere, prentsaurrekoan azaldu zuten bezala, enpresetan inkesta egin zen euskararen erabilera normalizatzeko zituzten beharrak eta nahiak jakiteko, enpresen %40 inkestari erantzun zuten eta 52 enpresek hizkuntzaren normalizazioaren alde zerbait egiteko prest agertu ziren.

Hori kontuan izanik, 52 enpresa horietatik 12, Buruntzaldeako herri bakoitzeko bi, aukeratu dira proiektu berri honen lehenengo urtean parte hartzeko.

Izan ere, 2010-2011 ikasurtean hasi eta 2014. urtera arte egongo da martxan egitasmoa.

Jarraipen batzordea

Baietz gurean proiektua kudeatzeko Jarraipen Batzorde bat eratu da.

Honetan kide finakoak Buruntzaldeako euskara batzordeetako lehendakari eta teknikariak, sindikatueta ordezkariak, enpresari ordezkaria, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburu ordetzaren ordezkaria eta Lanbide heziketako

ikastetxeetako ordezkari bat izango dira. Kide ez finakoak, berriz, aholkularitza teknikoaz arduratuko den enpresako ordezkaria eta egitasmoan parte hartzen duten enpresen ordezkariak izango dira.

Batzordearen eginkizunen artean, urteroko planak egin eta hauek behatu, proiektuan parte hartuko duten enpresak aukeratzeko irizpideak finkatzea edo Buruntzaldeako enpresa-munduko eragileak koordinatzea eta horretarako bi bilera egingo ditu.

2014an, irakurketa orokorra egin eta emaitzen haus-

narketa egingo dute Buruntzaldeako udalek lan munduan aurrerantzean hartuko den bidea zehazteko.

Esperientzia

Santiago Sarasola TSST autobus enpresako gerentea duela bi urte enpresak euskararen erabilera normalizatzea erabaki eta haien esperientzia azaldu zuten prentsaurrekoan.

Langile euskaldunek haien hizkuntzan lan egiteko aukera; euskara jakin baina erabiltzen ez zutenek euskara lantzeko aukera eta atzeritarrek integrazioa aukera bezala ikusi zuela azaldu zuten.

Horretaz gain, "euskararen merkatu potentziala etengabe ari da hazten eta enpresak merkatuaren eskaerei erantzuteko gai izan behar dugu," adierazi zuten.

"Enpresa batek irudi hobea eta sinesgarriagoa ematen du bere bezeroen aurrean haiek eskatutako hizkuntzan erantzuten bazaie," atxiki zuten. Honela, bezeroei eskaintzen zaien informazio guztia, baita iradokizun eta abisuak ere euskaraz ematen dituztela aditzera eman zuten.

Azkenik, beste enpresak animatu zituen euskara normalizatzeko plana martxan jartzeko. •

Lanpostuak sustatzeko proiektu pilotoa Lasarte-Orian

Lasarte-Oriako Udalak Eusko Jaurlaritzaren diru laguntzaz eta Erroak elkartearen kudeaketaz, garbiketara arloan herritarrei hezkuntza eta lana emango dien proiektu bat dauka martxan.

Proiektu hau pilotoa da eta honetan, Lanbiden izena emana zuten diru-sarrerak bermatzen dien errenta jaso eta lan egin dezaketen herritarrek parte hartu dute, hain zuzen ere, sei emakume eta bi gizonek.

Proiektuaren arduradun den tekniko baten eta irakasle baten eskutik, abenduaren 30ean hasi zuten prestakuntza eta otsailaren 25etik ekainaren 29ra, udal zerbitzuei lagunduko diete eskoletako patioetako, eraikineta



Erroak elkarteko ordezkaria, alkatea eta lanbide dinamizatzailea sinaketa ekitaldian.

baxuetako edo kirol instalazio irekietako garbiketari.

Hitzarmen sinaketa

Gauzak honela, Lasarte-Oriako alkateak Jesus Zaballos eta

Jose Ramon Elorz Azpiroz Erroak elkarteko ordezkariak ostiralean sinatu zuten elkar-lankidetzaren hitzarmena. Bertan, Dioni Avila lanbide dinamizatzailea ere egon zen. •

UDALA

Langabeen beherapenen orrialdean akatsa dago

Lasarte-Oriako Udalak jakin arazten du, lehenengo astean Lasarte-Oriako etxeetan banatu zen langabezia daudenen pertsonentzako deskontuen argitalpenean akatsa dagoela.

Honetan, haurren igeriketa ikastaroak eta kirol-ludoteka agertzen dira, baina Udaletik adierazi digutenez, bi kirol zerbitzu horiek ez lirateke orrialdean egon behar, ez baitute beherapenik. •

POLITIKA

Otsailaren 19ko manifestaziora joateko autobusak Lasarte-Oriatik

Otsailaren 19an, Bilbon egingo den bake prozesuaren eta edozein alderdi politikoren legalizazioaren, Sortu alderdi berria barne, aldeko manifestazioan parte hartzeko deialdia egin zuten larunbatean Euskal Herriko gizarteko hainbat eragileek.

"*Bakerantz, legalizazioa*" lemapean, La Casillan hasi eta hiriburuko kaleak zeharkatuko ditu.

Lasarte-Oriatik Bilboko ekimenera joateko autobusak jarriko dira. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, "autobusa arratsaldeko 15:30ean aterako da *Txiki-Jai* tabernako geltokitik".

Autobusean joan nahi duenak izena eman beharko du eta horretarako, Xirimiri elkartearen, Artizar tabernan eta Zabaleta auzoko dendan zerrendak aurkituko dituzte interesatuek. •

Lasarte-Oriak 25 urte beteko ditu bihar

■ Kultur Aste mamitsu eta ekitaldiz betea antolatu du Udalak datorren otsailaren 20ra bitartean
 ■ Herriko taldeen emanaldiak izango dira nagusi ■ Herritarrei eman nahi zaie protagonismoa

1986ko otsailaren 15ean eratu zen Lasarte-Oriako Udala eta udalerrria, eta bihar, herria sortu zenetik 25 urte betetzen direla eta, aste guztian hainbat ekitaldi burutuko dira, gehienak herriko taldeek eta herritarrek eginak; Lasarte-Oriako bandera Udaletxeko balkoian jarriko da gaur bertan, bihar Udalaren eraketa oroituako da Udaletxean 12:30etan egingo den ekitaldian eta "Oria" erakusketa zabalik dago Kultur Etxean. Gainera asteazkenean Jesus Manuel Perez Centenok herriaren sorrerari buruzko hitzaldia emango du Kultur Etxean.

Hogeita bost urte dira jada Lasarte-Oria herria jaio zenetik, mende laurdena Usubil, Donostia, Hernani eta Andoaindik banatu eta gaur egungo izaera hartu zuenetik.

Ofizialki eta juridikoki udalerrri bihurtu zen Brigitarren komentuan biharko egunez, otsailaren 15ean duela 25 urte, burutu zen ekitaldian.

Gauza asko pasa dira harez gerotzik, herria zeharo aldatu da eta aldatzen jarraitzen du. Aldaketak eta lanak dira oraindik ere herrian eguneroko ogi eta ikur nagusia eta hain juxtu 25 urtean Lasarte-Oriak izan duen bilakaera erakusten du urteurrena dela eta argazki zahar eta berriekin Udalak argitaratu duen aldizkariak.

Aste honetan bilakaera horrek eten bat izango du, azken 25 urteak gogoratuko dira, aste berezia izango da, ospakizunez betea.

Kultur Astea

Lasarte-Oriaren eraketaren XXV. urteurrenean Kultur Aste oparoa antolatu du Udalak eta kanpoko talde ezagun eta artistak ekarri baino nahiago izan dute udal agintariak herrikoiei garrantzi eta protagonismoa ematea.

Jesus Mari Zaballos alkateak berak galdetu zuen aurkezpenean: "Zergatik ekarriko ditugu krisi garai honetan kanpoko orkestra eta taldeak, gure kultur aberastasuna osatzen duten herriko taldeak



1986ko otsailaren 15ean eraketa ekitaldian parte hartu zuten herritarrek ageri dira irudian. Erdian, Ana Urchueguia, lehenengo alkate bihurtu zena.

izanik? Horregatik sartu ditugu egitarauan, data hain esanguratsuetan merezi duen protagonismoa emateko".

Alkatearen ustez 25 urte ez dira egunero betetzen eta horixe da ospatzeko modurik egoki eta onena, herriko taldeei aukera ematea. Horrela, herriko taldeak musu truk aritzen direnez, ospakizunetan duela bost urte baino 30.000 euro gutxiago gastatuko ditu Lasarte-Oriako udalak, guztira 20.700 euro.

Emanaldi eta kontzertua

Herriko taldeen ekitaldi nagusi bi egingo dira astean Kultur Etxean, gaur Kukuak Antzerki eta Dantza Eskolak emanaldi berezia emango du arratsaldeko 20:00etan, eta larunbatean arratsaldeko 19:30etan herriko hainbat talde izango dira, berriro Kukuakok partai-ere batzuek, Semblante Andaluz, Amaia Gonzalez eta Erketz dantza taldea eta Zero Sette akordeoi orkestra. Emanaldi honetarako gonbidapenak Kultur Etxeko harreraren eskuratu daitezke.

Gainera ostiralean arratsaldeko 18:00tik aurrera herriko taldeen kontzertuak eta tailer ezberdinak izango dira gazteentzat Andatza Plazan.

Asteartean, 25 urte
 Bihar beteko ditu Lasarte-Oriak 25 urte eta eguneko egitaraua Brigitarren komentuan egingo den mezarekin hasiko da. Bertan izango da Patxi Etxeberria bertsolaria ere. 12:30etan Udaletxean ekitaldi berezia egingo da, Lasarte-Oriako ereserkia eskainiko da eta Udalaren eraketaren akta irakurri. Gero arratsaldeko 18:00etan "Ausencias" liburua aurkeztuko da udal-eraketa eta 20:00etan Brigitarren komentuan Orfeo gaiteak kantatuko du. Beste liburu bat ere ezagutaraziko da, Antxon Agirre Sorondok "El mundo Laboral en Lasarte-Oria" liburua aurkeztuko du osteguneko 20:00etan kultur etxean.

Asteartean, 25 urte

Bihar beteko ditu Lasarte-Oriak 25 urte eta eguneko egitaraua Brigitarren komentuan egingo den mezarekin hasiko da. Bertan izango da Patxi Etxeberria bertsolaria ere. 12:30etan Udaletxean ekitaldi berezia egingo da, Lasarte-Oriako ereserkia eskainiko da eta Udalaren eraketaren akta irakurri. Gero arratsaldeko 18:00etan "Ausencias" liburua aurkeztuko da udal-eraketa eta 20:00etan Brigitarren komentuan Orfeo gaiteak kantatuko du. Beste liburu bat ere ezagutaraziko da, Antxon Agirre Sorondok "El mundo Laboral en Lasarte-Oria" liburua aurkeztuko du osteguneko 20:00etan kultur etxean.

Astean zehar, beste hainbat kultur eta kirol emanaldi ere burutuko dira, 7. orrialdean argitaratu dugun egitarauan ikusi daitezkenak.

Aldizkaria

25. urteurrena dela eta "oriotzapenezko" aldizkari bat argitaratu du Udalak. 16 orrialdean herriko toki ezberdinen argazki zahar eta berriak argitaratu ditu, 25 urtean Lasarte-Oriak izan duen bilakaera erakusteko.

Etxez etxe banatu den aldizkarian aste honetako egitaraua ere argitaratu da.

Hitzaldia

Jesus Manuel Perez Centeno herritarrek herriaren sorrerari buruzko hitzaldia emango du asteazkenean 19:30etan kultur etxean. Lasarte-Oriaren bereizketaren nondik norakoak azalduko ditu, batetik ikuspegi historikotik herri bilakatzeko galdutako aukerak kontatuko ditu, "Erdi Arotik XX. mende hasiera arte Gipuzkoan historikoki eman ziren herri eta kontseiluen sorrerak eta Lasarte-Oriak izaera hori ez eskuratzeko arrazoiak".

Bestalde, 1975eko trantsizio garaitik 1986an herri bilakatu zen arte eman zen

prozesua jorratuko du, "trantsizioetik 1986 urte bitartera eta ondoren sektore ezberdinetan emandako aurrerapen eta elementu interesgarriak".

Aukera ona

Jesus Manuel Centenok ez zuen banaketa prozesua ezagutu, hizlariak berak aitortu digunez, oso gaztea zelako, "13 urterekin harrapatu ninduen, Kotxeras-koa naiz, eta aukera positiboak irekitzen zitzaizkigula oroitzen dut. Eta ez ikuspuntu politikotik soilik. Txikitatik herri izaera hori bizitzen joan nintzen eta zenbait zerbitzuetan aurrerakuntzak iritsi ziren herrira".

Hizlariaren iritziz, Lasarte-Oriaren autonomia eta aurrekontua garrantzitsuak izan dira, horiek herrien beharrei erantzuteko erabili ahal izan direlako, beste inora joan beharrik izan gabe, lehen bezala Urnieta, Andoain, Hernani, Donostia,... beste herrietara joan gabe.

Hitzaldirako materiala lortzeko ez du Centenok urrun joan beharrik izan, Udaletxeko artxiboan eta Udal Liburutegian egin ditu kontsultak: "informazio guzti hori herrian bertan dugu, liburu eta egunkarietan". •

Herriko taldeen lanari esker, ospakizunean duela bost urte baino 30.000 euro gutxiago gastatuko ditu Lasarte-Oriako Udalak

Maitena Urretabizkaia Argazkilaria

“Argazkilaritzak engantxatu egiten du”

■ Otsailan zehar Maitena Urretabizkaia oiartzuarraren erakusketa egongo da ikusgai Jalgin
 ■ Argazkien artean gogokoena bozkatu eta zozketaz etxera eramateko aukera eskaintzen du

Jalgi kafe-antzokira sartu eta momentu horretan dagoen erakusketa begiraten dugu gehienok. Aldakorrak eta indar handikoak izan ohi dira. Oraingo honetan, Maitena Urretabizkaia argazkilaria lehengo erakusketa dugu otsailan zehar ikusgai. 11 argazkiz osatutako erakusketa, non gehienbat estudioko argazkiak biltzen diren, baita “espero ez duzun momentu horietan gertatutako zerbaít” eta kamerarekin betirako gordetako momentua.

Itxaso MORENO

Maitena Urretabizkaia 26 urteko oiartzuarra da. Nahiz eta informatikan aditua izan eta programazio lanak egin, argazkilaritza du bere hobbi eta afizio nagusia. Jalgi Kafe Antzokian bere lehengo erakusketa jarri du ikusgai. Gainera jendearen iritzia eskatu eta parte hartzen dutenen artean bere arte lanak zozketatuko ditu.

Informatikako ikasketak egin, eta hori duzu lanbide, baina zer da zuretzat argazkilaritza?
 Niretzako argazkilaritza hobbia da. Bere garaian pentsatu nuen horretara dedikatzea, baina hobbia izaten jarraitu zezan erabaki nuen.

Inspirazio gabeko egunak edo denboraldiak daude, eta argazkiak gogorik gabe ateratzera behertuta sentitzea, sentimendu hori ez nuen eduki nahi. Ez nuen argazkilaritzak niretzako duen xarma hori galtzea nahi.

Noiz hasi zinen argazkilaritza mundu honetan?

Egia esan ez dut ondo oroitzen. 12 urte nituenean eskolaz kanpoko ikastaroetan argazkilaritza kurso bat antolatu zuten eta mundu horrek asko deitzen zidanez, barrubarruan sartu nintzen. Bertan txuri beltzeko errebelatuak egiten genituen, gela iluna, argi gorria... asko engantxatu ninduen.

Zer transmititzen dizu mundu honek?

Xarma, goxotasuna... estudioko arratsaldeak lagunekin, bikotearekin...

Argazkietan zer duzu gogoko irudikatzea?

Paisajeak ez zaizkit gustatzen, detaile txikiagoak ditut nahingo edota zerbaít transmititzen edo pentsarazten duten egorak. Goxotasuna adieraztea gustatzen zait. Erakusketa honetan xaboi ponpen argazkiaren bidez egiten dut. Gogortasuna ere gustatzen zait, eta hori erakusketan mutil bat zelofanean bilduta adierazten dut.

Argazkiak bilatzen dituzu edo bat-batean sortutakoak dira?

Denetik gustatzen zait, baina normalean estudioko argazkiak, fondoak, postura... bilatutakoak lantzen ditut.

Kaletik noanean zerbaitek atentzioa deitzen badit ere argazkia ateratzen dut. Erakusketan, horren adibide, kakalardoak dugu. Igande arratsaldeko paseo batean ipurdizgora aurkitu nuen eta argazkia atera nion.

Zer da Jalgiko erakusketan aurkituko duguna?

Nire lehengo erakusketa. 11 argazkiz osatuta eta denetatik dago. Hala ere, gehienbat estudioko argazkiak jarri ditut erakusgai.

Biluziak garrantzia handia daukate erakusketan zer transmititu nahi duzu?

Lehen aipatu bezala zerbaít pentsaraztea edo sentiaraztea, indiferentzia sortzen ez duen zerbaít islatzea.

Zerbaít konkretua transmititu nahi duzu edo libre da?

Askotan argazkiak besterik gabe ikusten ditugu. Nik zerbaít transmititzea bilatzen dut, berdin zait goxotasuna



Estudioan argazkiak egitea gustatzen zaio Maitenari eta hau horren adibidea dugu.

edo gogortasuna den, baina zerbaít asierzea dut xedea.

Jendea erakartzeko inizatiba bat jarri duzu marbxan.

Jendeak erakusketa ikusi eta gero gustukoan izan duen argazkia bozkatu eta erakusketa amaieran egingo den zozketaren bidez bozkatu duen argazki hori etxera eramatzeko aukera du.

Zer lortu nahi duzu honekin?
 Jendearen parte hartzea oso interesgarria iruditzen zait.

Hasiera batean iritzien txosten bat jartzea bururatu zitzaidan, baina badakit azkenean jendeak ez duela idazten, nik berdina egiten dudalako.

Pentsatzen egon nintzen eta zozketarena oso ideia ona iruditu zitzaidan. Jendea joku batean sartzeaz gain, argazki bat aukeratu ahal izateko guztiak ikustera “behartzen” duzu indirektoki eta azken finean hori da nik nahi dudana, jendeak argazkiak ikustea. Kritika jasotzeko beste modu bat da, eta nik uste interesgarria dela.

Zure argazki guztiak erretra-tuekin zerikusia dute?

Argazki gehienek bai. Eta puntu ezberdinetatik aterako argazki eta erretratuak dira gainera.

Zure lehengo erakusketa eta Lasarte-Orian?

Jalgirako erakusketarako inprimatuak dira espreski argazki hauek baina espero dut gerora erakusketa gehiago egitea eta balio izatea.

Nire lana dago erakusgai eta espero gustokoa izatea. •



Goxotasuna adierazteko modu berezia bilatu du Maitenak xaboi ponpen bidez.

Argazki bat aukeratu ahal izateko guztiak ikustera “behartzen” duzu indirektoki eta hori da azken finean argazkilaria guztiak dugun xedea

Erraustegiaren finantzaketari erantzuna

■ La Caixa eta Banesto bankuen aurrean protestak egingo dituzte ■ Gipuzkoa Zero Zabor taldeak diru publikoa axolagabeki xahutuko dela salatu du ■ 378 milioi euro erabiliko dira

Zubietan erraustegia eraikitzeko behar diren 378 milioi euroak, Europako Inbertsioen Bankuak (195), Foru Aldundiak (115) eta Banesto zein La Caixa bankuek (68) jarriko dituztela eta, Erraustegiaren Aurkako Plataformaren koordinakundeak deituta Lasarte-Oriako Caixaren bulegoan protesta egin zuten larunbat eguerdian. Gipuzkoa Zero Zabor (GZZ) koordinakundeak, bestalde, diru publikoa axolagabeki erabiliko dela salatu du eta erabakiarekin bere desadostasuna adierazi.

JON ALTUNA

Gipuzkoako agintariek jakinarazi dute lortu dutela Zubietan errauste planta eraikitzeko beharrek finantziarioa, lanak ordaintzeko gutxienez behar diren 378 milioi euro alegia. Hainbat hilabetetan negoziatzen aritu eta gero, azkenean Europako Inbertsioen Bankuak 195 milioi jarriko ditu, Foru Aldundiak 115 aurreratuko ditu eta Banesto eta La Caixa bankuek 68 milioi euroko maileguak emango dituzte.

Erraustegiaren Aurkako Plataformaren koordinakundeak bi banku hauen aurkako kanpaina burutuko du otsailean eta hain juxtu pasa den larunbat eguerdian Lasarte-Oria Bizirik taldeak deituta hainbat herritar elkartu ziren La Caixak Kale Nagusian duen bulegoaren aurrean, La Caixa berak eta Banestok Zubietan eraikiko den erraustegia finantzatzeko kredituak emango dituela jakinarazteko. Plataformako kideek salatu zuten "Denon Osasunaren gainetik beraien negozioa aurretik" dela. Lelo honekin elkartu ziren lagunak, Banesto eta La Caixak Gipuzkoarros osasunaren kontura negozioa egiten ari direla salatu zuten.

30 lagun inguru bildu ziren gutxi gora behera eta ordu erdiko kontzentrazioa burutu zuten. Tarte honetan kalean zegoen jendeari panfletoak banatu zizkieten eta hauek batzuk informazioa irakurri eta kontzentrazioa gehitu ziren La Caixaren erabakiaren kontra.

Plataformak, Gipuzkoa Zero Zabor, Ekologistak Mar-txan eta Eguzki talde ekologisten laguntzarekin otsailean zehar egingo ditu La Caixa eta Banesto bankuen aurkako salaketak: besteak beste banku hauen bulegoan aurrean kontzentrazioak batetik eta bulegoetako arduraduneei gutunak bidali bestetik.

Koordinadorak salatu du, "La Caixaren eta Banestoren

web orrietan dionez, banku hauek ingurugiroarekin konpromiso serioa dute, aldaketa klimatikoaren aurka gogotik ari dira eta energia berriztagarrien produkzioa finantzatzekoan liderak dira. Hauxe izango da agian Zubietako erraustegia kostako den 400 milioien parte bat jartzeko bankuen arrazoiak".

Propaganda hutsa

Errausketaren aurkakoan ustez, "Banestok eta La Caixak lehentasun osoa ematen diete etekin ekonomikoei "El compromiso de Banesto con el Medio Ambiente y la lucha contra el Cambio Climático" txostean esaten dutenari ez diote kasu zipitzik egiten; "La Caixa y el entorno", dokumentuan agertzen diren hitz polit guztiak ezerezean geratzen dira negozio borobil eta seguru bat begi aurrean ikustean".

Koordinadoraren ustez: "Hauxe da honelako gizarte kapitalistaren funtzionatzeko modua, ekonomia eta beraien irabaziak neurri gabeko kontsumoan oinarritzea, hondakin kopuru izugarriak sortzea, hauen kudeaketatik ere ahalik eta etekin handiena ateraz".

Beraz, azken finean errausketaren alde egin duten banku hauek errefusatu dituzte plataformak, herritarren eta oro har luraren osasunaren aurka ari direlako, errausketa bazterten



La Caixaren aurrean elkartu ziren Lasarte Oria Bizirik taldekoak Erraustegia finantzatzeko duela jakinarazi eta salatzeko.

dute, Zubietan eta beste edonon eta alternatiba badagoela defenditzen dute, Atez Ateko bilketa eta Gipuzkoa osora zabaltzeko aldarrikatu.

Diru publikoa xahutu

Bestalde Gipuzkoa Zero Zabor taldeak diru publikoa axolagabeki erabiliko dela salatu du eta erabakiarekin bere desadostasuna adierazi.

"Gure desadostasun erabitekoa azaltzen diegu Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoari diru publikoa horrela erabiltzea erabakitzean erakusten duten axolagabekeriagatik. Tematuta segitzuten dute gure hondakinak urritu, berrerabili eta birziklitzeko partez horiek kixkaltzeko proiektuan, jakinik hori dela -errausketa- aukerarik zikinena,

kutsagarriena, iraunkortasunik gutxiena duena eta garestiena".

GZZren ustez dirutza izugarria xahutuko dute, "egun batetik bestera zifra ezberdinak aipatzen dituzte" baina "Gipuzkoarroi kobratu nahiko digute datozen hamarkadetan, zertarako eta, ez hondakinak suntsitzeko baizik eta bestelako hondakin askoz kutsagarriagoak bihurtzeko".

Diru hori hobeto erabili daitekeela argi du GZZk, "demostratuta dago eta gure agintariek jakin beharko lukete, azaldu baitzaie behin eta berriro".

Bankuek dirua uztearen truke jarri dituzten baldintzen xehetasunik eman ez bada ere, ondorioak salatu ditu GZZk: "Baldintza gogorak izango dira, seguru; munduko beste leku askotan erakutsi den

bezala errauste planten bideragarritasuna lortzeko, herritarrei kendutako dirua erruz bildu beharko dute, bai biltzen duten hondakinen gaineko tarifak igoz, bai gero eta subentzio zikinagoak asmatuz. Urte askotarako hipotekaturik geratuko gara gipuzkoarrok".

Errausketa baino merkeago

GZZk berriro ere moratoria eskatzen du hondakinen bestelako kudeaketa sisteman praktikan jartzeko. "Zero Zabor politikak ezartzea askoz merkeago da, iraunkorra eta osasunarentzat onuragarriagoa. Munduan leku askotan demostratu da eta Euskal Herrian ere bide horretan abiatuta gaude."

Gipuzkoako agente faktikoek, Diputazioko agintari politikoei eta goi funtzionarioei, hondakinetatik negozioa egiten duten enpresek eta hauekin elkar hartuta dauden komunikabide handiek, guztien artean sekulako intoxikazio kanpaina ari dira burutzen urteotan, mundu osoan hainbeste kritikatzan den errausketa Gipuzkoan onartu dezagun".

Koordinakundeak salatu duenez gipuzkoarren eta ondorengo osasuna, ongizatea eta dirua daude jokoan: "Ez dugu onartzen Gipuzkoa osoa zorretan sartzea zeren truke eta hondakinen errausketaren truke. Dominique Belpomme mediku eta kantzerologoak esana du berrikan: Errausketa gizateria- ren kontrako krimena da!"

Bi mila lagun elkarrekin dantzan

Bi mila lagun dantzan jarri nahi dituzte martxoaren 20an eguerdian Zubietako plazan Erraustegiaren aurka eta moratoria eskatuz.


Flashmob erraldoi hau egiteko "hartu nahi dut arnas" kanta eta koreografia prest daude eta ensaioak duela aste batzuek hasi ziren Usurbilen. Beste herri batzuetan egiteko asmoa dute, Lasarte-Orian asteazkenean arratsaldeko 20:00etan Kultur Etxean. Antolatzaileek adierazi dutenez,

ekimen handi honen helburua, Zubietako plazan "elkartasun uholdea sortzea" da, "energia transformatzailea" zabaltzea eta "Zubietako bizilaguneei gipuzkoar guztion partetik besarkada bat ematea".

"Dantza egiten duen herriak edozer lor dezake" leloari heldu eta Zubietako ekimenaren berri ematen ari dira. Dantza erraza dela jakinarazi dute eta pausuak ikasteko bideoa eta informazioa <http://www.gipuzkoazz.com/zerozabor/?p=302>,

helbidean jarri dituzte.

Mikel Erguín, FlashMobeko dantzaren koreografoak berak azaldu du asmoa dantza eginez gozatzeaz batera hausnarketarako bide ematea dela: "Osasunaren alde, Moratoria, erraustegirik ez" leloarekin bat eginez, "dantza, gorputzarekin, eskuekin, begiekin, mugimenduarekin, bizitza, bihotza, osasuna,... adierazi nahi ditugu". Pixkanaka itzaltzen joango dira, errausketa bihurtuz. •



Euskarazko antzerkia Jalgin Xebe Diezen eskutik

DIBERTIMENDI lana aurkeztuko du Xebe Diez aktoreak ostiralean. Lan honetan Xebek Ukrainatik etorritako bere anai-arreba sekretuak, Xiberi eta Xibur aurkeztuko ditu. Umorez beteriko lan honetan bere anai-arreben papera ere egingo du Xeberrek.

OSTIRALEAN, HILAREN 18AN
JALGIN 23:00ETAN
EUSKARAZ

Lasarte-Oriako XXV. urteurrena

Astelehena, 14

11:00 LASARTE-ORIAKO BANDERAREN IGOERA. Udaletxean.
11:15 POEMEN IRAKURKETA EPAK, literatura tailerrak eta Zentro Zibikoak. Udaletxean.
19:00 ORIA erakusketaren inaugurazioa. Kulturetxean.
20:00 DANTZA ETA ANTZERKI EMANALDIA Kukuka taldearen eskutik. Kulturetxean.

Astearte, 15

11:00 MEZA Brigitarren komentuan boskote batekin eta Patxi Etxeberria bertsolariarekin.
12:30 LASARTE-ORIAKO ERESERKIA ETA UDALAREN ERAKETAREN AKTAREN IRAKURKETA. Udaletxean.
18:00 "AUSENCIAS" liburuaren aurkezpena Udaleko pleno aretoan.
20:00 ORFEOI GAZTE taldearen emanaldia Brigitarren komentuan Danok Kideren VI. Musika Topaketetan.

Asteazkena, 16

18:00 BIYAK BAT ZAHARREN ETXEO ETA EMAKUMEEN ZENTRO ZIBIKOKO abesbatzen emanaldia kulturetxean.
19:30 HERRIAREN SORRERA izeneko hitzaldia eskainiko du Jesus Manuel Perez Centenok kulturetxean.

Osteguna, 17

18:30 HERRIKO LEHENENGO IRUDIEN proiektzioa eskainiko da eta ondoren Udal Musika eta Dantza eskolen emanaldia kulturetxean.
20:00 "EL MUNDO LABORAL DE LASARTE-ORIA" liburua aurkeztuko du Antxon Aguirre Sorondok kulturetxean.
20:15 DERBIA jokatu dute Aldaz eta ISU areto futboleko taldeek kiroldegian.

Ostirala, 18

18:00 HERRIKO TALDEEN kontzertuak izango dira entzungai eta Kale Hezitzailen tailerrak eskainiko dira Andatza plazan.

Larunbata, 19

10:00 BOLA TXAPELKETA jokatu dute da Michelingo bolatokian.
11:00 GIMNASIA ERAKUSTALDIA Biyak Bat Erretiratuaren etxeko taldearen eskutik. San Pedro parrokiaren ondoko Elizatze plazan.
11:30-13:30 HAURRENTZAKO
16:30-18:30 JOLASAK egongo dira Andatza plazan.
12:00 INTZAKO PILOTA partidak jokatu dute Loidi Barreneko frontoian.
19:30 ALBOKA ABESBATZA, SEMBLANTE ANDALUZ, ERKETZ DANTZA TALDEA, ZERO SETTE AKORDEOI ORKESTRA ETA AMAIA GONZALEZ taldeek emanaldi bateratua eskainiko dute kulturetxean.
23:00 AZABACHE taldearekin berbera Isla plazan.

Igandea, 20

10:00 KALBA jokoa izango da Atsobakar auzoan.
11:30-13:30 HAURRENTZAKO
16:30-18:30 JOLASAK egongo dira Isla plazan.
11:30 HELDUEN DANBORRADA aterako da Brigitarren komentutik.
16:00 SORGINDANTZAREN DESFILEA aterako da Arantzazuko Amaren elizatik.
17:00 DERBIA jokatu dute Texas eta Ostadar futbol taldeek Michelinen.
18:00-22:00 ERROMERIA eskainiko du Amalur taldeak eta saiheski eta sagardo dastatzea izango da Loidi Barreneko frontoian.

Eskutitza

Prieto andereari

Prieto andere agurgarria. Onarpen publikoa nahi baduzu, nik publikoki esaten dizut egia dela zuk ordenantza fiskalei emendakinak egin zenizkiola, EB, EAJ edo adskribatu gabeek egin zuten bezala. Eta negoziaketen ostean, horietako batzuk onartuak izan zirela ere onartzen dut. Kasu zehatz honetan esan behar da, onartu zen emendakina PSE eta LOH-Pak batera egindako transakzio-emendakina izan zela, eta ez zuk hasiera batean aurkeztu zenuena. Izan ere, zuk ongi dakizun bezala, bozka bakarra duzu eta bederatz behar dira gauzak aurrera eramateko, alkatetzan daramadan urte honetan ongi erakutsi didazuen bezala. Baina, badakizu zer? Meritua ez da bi alderdiena korporazioa osatzen duten beste alderdi guztiak ere proposamenarekin bat etorri baitziren.

Egia da neurria urtarilaren 1ean jarri zela indarrean eta hemeroteka erabiltzen baduzu, egunkarietan argitaratu dela ikusiko duzu. Ez al duzu gogoratzen, udal batzarrean komunikabideei 2011. urteko ordenantza fiskaletan onartutako puntu garrantzitsuena zela ohar-tarazi niela? Orain, biztanle guztiak gogorazi nahi izan diegu liburuxka baten bitartez, baina badakizu, hainbeste lan egiteak eta hainbeste gai eskuartearen izateak ez digu argitalpenak nahi dugunaren ataratzeko aukerarik ematen eta ziurtatzen dizut ez dela alde zure aurretik pentsatua izan.

Azkenik, alderdi bezala gure izaera soziala zalan-tzan jartzea akatsa dirudit, egunero frogatzen baitugu egitasmo desberdinak eginez, hala nola, duela gutxi martxan jarri den elikagai banaketa puntua edo Erroak elkartearrekin dugun lankidetzaren programa, zeinetan Lanbiden izena emanak zeuden eta diru-sarrera bermatzeko errenta jasotzen zuten zortzi pertsonen lanpostua emango zaien. Horiek ere zure proposamenak al dira?

ERREDAKZIOAN ITZULIA

Jesus M. Zaballos
Lasarte-Oriako alkatea

Egunero

Erakusketa

MAITENA URRETABIZKAIAREN argazkiak ikusgai. Aukeratu gehien gustatzen zaizun argazkia eta parte hartu zozketan. Jalgi kafe-antzikian, egun osoan zehar

Asteazkena, 23

Ikastaroa

TXAKURRAK ONDO HEZITZEKO ikastaroko bigarren saioa. Manuel Lekuona kulturetxean, 19:00etan

Larunbata, 26

Musika

HIJOS DE JAEN taldearen emanaldia Andaluziako eguna ospatzeko ekitaldien barruan. Sarrera, 3 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 19:30ean.

Igandea, 27

Zinea

MEGAMIN haurrentzako filma ikusgai. Sarrera, 3,30 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:00etan.

Oharrak

Pala Txapelketan izena emateko epea luzatu da

Ostadar Kirol Fundazioak urtero antolatzen duen gomazko pilotarekin jokatzeko XVII. Pala Txapelketan bikoteen izena ematea lehenengo astean amaitzen bazen ere, antolatzaileek hurrengo ostiralera arte, hau da, otsailaren 18a arte, luzatu dute epea.

Beraz, edizio honetan parte hartu nahi duten bikoiteek oraindik ere garaiz dabil-tza. Izena eman nahi dutenek Ostadarreko bulegora jo behar dute, Geltoki kalea 25, arratsalde 16:00etatik 20:00ak bitartean.

Galdutako erlojua

Swatch markako erloju beltz bat galdu zait Lasarte-Oriako kiroldegia inguruan. Jaso duen pertsonari bueltatzea eskertuko nioke, opari bat zen eta. Eskerrik asko. Mikel 647 995 050 (mikelgnieta@terra.es)

Galdutako gauzak

Udaltzainen bulegoan gauza hauek daude jasota, zilarrezko kolgantea, urrezko aliantza Jose Luis grabaketarekin, hiru bizikleta, lau erloju, urrezko pultsera, betaurreko graduatuak, eraztun bat, hiru diru zorro, gerriko poltsa, manikura kutxatilla, neskaen esku-

muturra eta zilarrezko pultsera bat.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte. Horietaoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiak eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkarira. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943 366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz mezua txintxarri@txintxarri.info helbidera bidaliaz edo bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

Asier Uribek eta Beñat de Miguelek ez dute azterketa teorikoa ordainduko

Semaforo berdea: orain gidabaimena euskaraz ekimenarekin sari banaketa egin zen

Buruntzaldeako hamaika auto-eskolatan azterketa teorikoa euskaraz egiteko aukera dago eremuko euskara batzordeek 2009-2010 ikasturtean sustatutako *Semaforo berdea: orain gidabaimena euskaraz* ekimenari esker.

Egitasmo honen helburua Buruntzaldeko gazteek gidabaimena euskaraz ateratzea da.

Horretarako, Udalek egitasmo honen hasieran parte hartzea erabaki zuten auto-eskolei euskarazko materialak eta hainbat euskarritz hornitzen lagundu zieten, diru laguntzen bidez.

Eta honetaz gain, ekimen honetan parte hartu duten gazteek azterketa teorikoa doan lortzeko aukera izan dute.

Gauzak honela, 2010. urtean zehar, zazpi izan dira ikasleak euskaraz prestatu dituzten auto-eskolak eta, horri esker, Buruntzaldeko 34 gaztek gaintitu dute euskarazko azterketa eta horietatik bederatzia Lasarte-Oriakoak izan dira.

Horregatik, antolatzaileek 2011. urtean egitasmoari jarraipena emateko asmoa adierazi dute.

Zozketa

Urtarrilaren 25ean Urnietako Lekaio kultur etxean, zazpi auto-eskolak bildu eta 2010ean zehar gidabaimena euskaraz atera duten Buruntzaldeko herritarren artean sariak banatzeko zozketa egin zen, auto-eskola bakoitzeko sari bat.

Zozketa honetan Lasarte-Oriako Lasarte auto-eskolako 3 ikasle eta Mugica autoeskolako 6 sartzen ziren eta onuradunak, hurrenez hurren, Asier Uribe eta Beñat De Miguel herritarrak izan ziren.

Sari banaketa

Lasarte-Oriako Udalak otsailaren 4an egin zuen sari banaketa.

Honetan Jesus M. Zaballós, Lasarte-Oriako alkatea, Ana Mugica Mugica autoeskolako arduraduna, Raquel Lasarte auto-eskolako arduraduna eta Marifer Gorostiza Lasarte-Oriako euskara teknikaria egon ziren.

Zorteko bi gazteak, Asier Uribe eta Beñat De Miguel ezin izan ziren ekitaldian egon.



Alkatea eta Mugica eta Lasarte auto-eskolako arduradunak sari banaketan.

Ondorioz, alkateak auto-eskolek arduradunei eman zizkien sariak onuradunei helarazteko.

Saria azterketa teorikoak eragindako gastuak ordaintzeko adinako diru kopurua da, 400 euro gehienez. •

2011 Jaunartzeak

Zatoz
eta informa zaitez



Eztiphot



Golf Plaza 4, Atsobakar.

Tlf: 943 900 565

www.eztiphot.com